



**EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GARDENTASUNAREN,**  
**HERRITARREN PARTE HARTZEAREN ETA GOBERNU ONAREN LEGE**  
**PROIEKTUAREN MEMORIA**

Memoria hau lege-aurreproiektu honen izapidetzeak «memoria» formatu horretan eskatzen dituen jarduera guztiak gutxika jasotzeko formulatzen da.

**HASIERAKO TESTUAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA, AURRETIAZKO ONARPENAREKIN.**

**Sarrera**

Lege-proiektu honen xedea eta helburua honako hauek arautzea da:

1- Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoaren funtzionamenduaren funtsezko ardatzak (xedatutakoaren haraindian, ikuspegi instrumentalagotik, Sektore Publikoko Antolakuntzako eta Funtzionamenduko Legearen aurreproiektuan), zeharkako irizpideak direlako, horrela, gure Gobernantza-ereduaren oinarriak jarrita. Hori politika publikoen ebaluazioak, gardentasunak eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeak eratzen duten triangelu kontzeptualean oinarritzen da, eta bere helburua gizarte-, ekonomia- eta erakunde-garapen iraunkorra lortzea da, gobernuaren ekintzaren, gizarte zibilaren eta gizarte- zein ekonomia-jardueraren orekan oinarrituta.

Horrekin, zehazki adierazi bezala, honako hau du helburu:

2- Gauza publikoa deitutakoaren inguruko herritarren pertzepzioa hobetzeari buruzko eztabaida erabakitzailea premiatzea Euskadin.

3- Horren balioa handitzea, labor esanda, gobernantza ona deitutakoaren hainbat aspekturekin erlazionatutako garai berriek eskatzen dituzten paradigma berrietan oinarritutako kultura administratibo berria sortzen lagunduta.

Beraz, egungo aurreproiektuaren berehalako aurrekaria den Euskal Administrazio Publikoaren Lege proiektua ukatu zuten talde politiko horiek adierazitako aldarrikapen nagusia onartzen da, gobernu onaren erregulazioari garrantzi eta ikusgarritasun handiagoa ematearen aldetik (gardentasuna, ebaluazioa, partaidetza), berezko izakitasuna duen testu desberdinduaren onarpenaren bidez.

Beraz, HONAKO HAU ONARTZEN DA: Gobernu onaren erregulazioari garrantzi eta ikusgarritasun handiagoa ematearen proposamena (gardentasuna, ebaluazioa, partaidetza) desberdindutako testuaren onarpenaren bidez, testu horretara eramaten diren artikuluei eragiten dietenen arteko PSEren (osoari eta 1.ari), BILDUren (osoari), UPyDren (osoari) zuzenketek argudiatu bezala.

Eta hori, aurreproiektu honetatik bereizitako antolakuntza- eta funtzionamendugaiek horrekin duten lotura sakona ahaztu gabe, bere garaian Euskal Administrazio Publikoaren Legearen jatorrizko proiektuak adierazten zuen moduan. Egun oraindik nabaria da testu honek Euskal Sektorre Publikoko Antolakuntza eta Funtzionamendu Legearen aurreproiektuari egin behar dizkion igorpen zehatzen kopuru handian. Hori orain lantzen ari garenaren alboan izapidetzen da, alferrikako jatorrizko proiektuaren beste oinordeko zuzena bezala.

Proiektu honen prestaketa-prozedura hasteko Aginduak helburu den araudiaren bideragarritasun juridikoaren eta materialaren berri ematen du, bai eta indarreko antolamenduan dituzten ondorio nagusien berri ere.

Nolanahi ere, bere edukiaren arrazoi anitzak azaldu aurretik, zalantzarik gabe ezinbestekotzat jotzen da nabarmentzea, aurretik esan bezala, ez gaudela guztiz *ex novo* sortutako ekimenaren aurrean dagokion gobernuko plangintza-aurreikuspenetik, baizik eta geroko lan sortzailearen ondorioa dela, Euskal Administrazio Publikoaren lege-proiektuaren aurrekariari dagokion testuaren banaketaren ekintza egiaztagarritik abiatuta. Hori orain dela gutxi izapidetu zen Legebiltzarrean eta Gobernuak baztertu zuen, orduko egoera politiko negatiboa zela eta. Aurreproiektu berriak horren zati esanguratsua jasotzen du (egun arautzen diren gaien ingurukoa: funtsean Euskal Administrazio Publikoaren lege-proiektuaren III., IV. eta V. Tituluetan jasotako «gobernantza» edo «gobernu ona» deitutakoa), kasuen arabera garrantzi handiagoa edo txikiagoa duen aberasketarekin; izan ere, talde parlamentarioek egindako proposamen gehienak jasotzen ditu.

Aurreko dinamikatik ondorioztatzen da, euskal sektore publikoko gardentasuneko eta gobernu oneko lege-aurreproiektu berriaren justifikazioa lantzerakoan, Euskal Administrazio Publikoaren Legearen bidez hasieran gauzatu nahi zenaren azalpen guztiak errepikatu nahi izan gabe, beharrezkoa dela testu horretatik berreskuratzen den funtsa azalpen berean zabaltzea eta integratzea, horren xehetasunak gehiengo politikorako merezi izan zuen balorazioarekin batera. Horrela, araudi bakoitzak duen egingarritasuna ondorioztatu ahal izango dugu, asmo esplizituekin kongruenteak izateko eta, gutxienez, seguru asko, etorkizunean Eusko Legebiltzarren beharrezko laguntza eta onarpena lortzeko.

Zuzenketa batzuen zati batzuk onartu eta beste batzuk ukatu egiten direla, edo beste batzuk zuzenketa bakar baten barnean proposamen ezberdinak sar ditzaketela kontuan izanda, talde parlamentario ezberdinek aurkeztutako 380 zuzenketa ingurutik, Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektu osotik edota hemen aurkeztutako testuan erabat edo partzialki jasotako artikuluen zuzenketa partzialetatik, 250 inguru sartu dira, 130 inguru soilik ukatuta, koherentzia-arrazoiak (talde batenak onartzerakoan, bestearenak ukatuta), edo memoria honetan azaldutako arrazoi teknikoak (proposamen garrantzitsuenenak, gutxienez) direla eta.

Bestalde, hasiera batean, aurreko fasean jadanik esandakoa errepikatu behar dugu, aurreproiektuan landutako gai guztien inguruan nahi bezain zehatza eta sakona den justifikazioa gauzatzeko zailtasunaren inguruan (testua, azalpena, aukerak, etab...), batetik, luzea (81 artikulua, 3 gehigarri, 2 iragankor, 3 azken) eta jarduera publiko ia osoari buruzko inplikazio sakonak dituzten gaiak buruzkoa den testuaren aurrean gaudelako, potentzialki sektore publikoak garatutako politika publiko guztiei eraginda eta, ondorioz, gai anitzenen gaineko proiektioarekin. Horregatik, oso konplexua (edo ezinezkoa) da Legebiltzarrean bere garaian aurkeztutako proiektuaren (aurreko fasean, horren txosten osoak mila orri baino gehiago zituen dagoeneko) idazketa- eta izapidetze-prozesuan sortutako hausnarketak eramatea, zein testu honen idazketa eta garbiketa, artikulua bakoitzean laburtzen diren asmoen, helburuen eta xedeen adierazpen osoarekin.

Egungo arrazoen azalpenak gobernantzako eredu integralari ekiteko asmoa adierazten du, hasieratik lantzen dituen hainbat aspekturen (ebaluazioa, gardentasuna eta partaidetza) interdependentzia jakinarazita. Gainera, euskal sektore publiko osoa eratzen duten erakundeen, organismoen eta entitateen multzo osoarentzako aplikagarria izan nahi du horrek.

Alde horretatik, testu honek talde parlamentarioek Euskal Administrazio Publikoaren Lege Proiektuaren testuari egindako bi gaitzespen nagusiei erantzuten die, hori bezala Autonomia Erkidegoaren sektore publikora (Autonomia Erkidegoaren Administrazio orokorra eta instituzionala eta lotutako erakunde instrumentalak) zorrozki mugatuta (gardentasun-gaien inguruko zenbait aspektu iragankor edo zehatz batzuk izan ezik). Jatorrizko proiektuak euskal erakundeen gainontzeko gobernu-mailei aplikatzen zaien gobernantza-ereduaren ildo nagusiak ere ez arautzeagatik, zenbait talde politiko batzuk ulertzen zuten lurraldean elkarrekiten duten erakunde publiko eta gobernu-maila guztientzako aplikagarria den (gutxienez, bere ildo orokorrak) euskal gobernantza-eredua garatzeko aukera galtzen ari zela. Aspektu hori testu honetan zuzentzen da. Bere lehen tituluan, zein xedapen gehigarrietan, iragankorretan eta azkenetan eta testuaren beste zati ugarritan, horrek argi adierazten du euskal sektore publiko osoan aplikagarria izateko nahia (gutxienez, bere printzipioak eta ildo nagusiak), orain Euskal Sektore Publikoko Antolakuntza eta Funtzionamendu Legaren aurreproiektuan zehaztu bezala.

Beraz, HONAKO HAU ONARTZEN DA:  
 Gobernu oneko araudiaren aplikazio-eremua euskal administrazio publiko guztietara (Lurralde Historikoak eta Udalak barne) zabaltzeko proposamena, baina printzipioen mailara mugatuta; horrek testu honetara eramandako artikuluei eragiten dieten PSEren (guztiak, 1, 3, 5, 40, 41, 42, 44, 52, 56, 60, 61, 65, 66, 67, 68, 69, 70, 71, 72, 73, 82, 88, 90, 95 eta 97), BILDUren (guztiak) eta UPyDren (guztiak, 3 eta 96) zuzenketei erantzuten die.

Nolanahi ere, Euskal Administrazio Publikoaren Lege proiektuaren inguruan aurreproiektu honek sartzten dituen bi berritasun handi horien konbinazioak gauza argi bat dakar: araudi honen proiektioa antolakuntza-aspektu ugarritan (testu honek aipatu besterik ez ditu egiten, batetik, Titulu zehatz bat gai instituzionaletarako erabilita, eta gainontzean Euskal Sektore Publikoko Antolakuntzako eta Gobernu Oneko aurreproiektuari edo bere kasuan

aplikagarria den araudiari eutsita), eta gobernu-maila ezberdinei zein pertsonifikazio-modu ezberdinei eragiteko nahia direla eta, euren antolakuntza-eta funtzionamendu-arauekin, beharrezkoa da eragin-maila ezberdinak kontu handiz neurtzea, bakoitzaren autoantolaketa-gaitasuna errespetatuz jarduteko. Horregatik, esan bezala, euskal sektore publiko osoarentzako aplikagarria den gobernantza-eredua diseinatzea baztertu gabe, testua Autonomia Erkidegoaren sektore publikoan ardaizten da nagusiki, printzipioak eta ildo orokorrak adieraztera mugatuta, gainontzeko gobernu-mailei dagokienez.

Alde horretatik, proiektatutako araudia bat dator nagusiki «Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren» abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10. artikuluko 2., 6. eta 24. paragrafoetan jasotzen diren eskumen eskusiboekin, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren autogobernu-erakundeen antolamenduari, araubideari eta jarduerari buruzkoekin, bai zuzenbide substantiboaren espezialitateetatik eta Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko antolamendutik eratortzen diren administrazio-prozeduraren arauari buruzkoekin, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoaren beraren sektore publikoari buruzkoekin ere, betiere Estatutuko beste arau batzuek eragiten ez dioten neurrian, arrazoen azalpenak adierazten duen eskumen-funtsean aipatutako alboko beste gai batzuk ukitzea kaltetu gabe.

Horren inguruan, nabarmentzekoa da lege honekiko eskumen gaitasuna agortzen denari edo ez denari buruzko diatriba agian ezin dela erantzun; izan ere, zehazki arrazoi ekonomikoengatik eta politikoengatik sektore publikoa egokitzen ari den Estatuaren jatuntasun-ingurunea ahaztea dakar. Era berean, funtsezkoak ez diren araudiak sartzeko arriskua hor dago beti. Baina amaitutako eta itxitako araua aurkeztearen komenigarritasunaren aurrean, mutur bakoitzaren eta eduki guztien berehalako erabilgarritasun zuzena erabat bermatuta, ezin dugu alderatu testu hau bide luzearen lehen urrats garrantzitsua denaren errealitatea. Arau teknikoak baino, jokabideak eta kulturak leheneratzen ditu eta, horregatik, hein handi batean, oso programatikoa den edukia duen araua ere sustatzen ari gara; testuan zuzenean arautzen denaren haraindian, hori zorrotzasun osoarekin garatzen joago da etorkizun hurbilean, araudi berria kontsolidatzen den heinean.

Aurrekoa esanda, memoria honen gainontzeko edukia Titulu bakoitzaren arrazoen azalpena partzialki kopiatuta garatuko da, Kapitulu bakoitzaren izateko arrazoa eta, gutxienez, bere agindu nagusien zein bertara eramandako gai esanguratsuenen ideia azalduta, etengabeko erreferentzia den Euskal Administrazio Publikoko Legearen inguruan sortutako eztabaidaren ondorioz.

Lehenik eta behin aipatu beharrekoa (*euskal sektore publikoaren* gardentasuneko eta gobernu oneko) legearen errubrika edo titulu izenduna horrek gehiengoaren iritzi politikoa erantzuten duela da; horrek adierazpen horren erabilera kontsideratzen duela dirudi Administrazioari lotutako erakunde eta entitate guztiak aipatzeko, antolamenduaren bilakaerarekin koherenteagoa baita «sektore publikoaren» adierazpena (eta, halaber, bat dator Estatuak «sektore publikoaren araudi juridikoaren» inguruan proiektatutako araudiarekin). Beraz, adierazpen hori erabiltzen da Administrazio Publikoak dituen pertsonifikazio juridikoko forma ezberdinen eta, zehazki, Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari eta instituzionalari lotutako hartzaile plurala identifikatzeko. Eta, beste aldetik, irizpide bera erabiltzen da Kontu Auzitegiaren aipatutako araudiak aipatzen duen «euskal sektore publikoaren» eremu osoko erreferentzia sartzera, baina baita horrela laburtzerakoan aintzat hartutako xedea euskal Administrazio publikoen multzoa dela, foralak eta tokikoak barne, horiei lotutako edo atxikitako euren egiturez gain.

Beraz, HONAKO HAU ONARTZEN DA:

Testu honetara eramaten diren artikuluei eragiten dietenen arteko PSEren (guztiei, 1 eta 2), BILDUren (guztiei, 1, 4, 5, 6, 26, 27, 32, 82, 83, 85, 87, 92, 95, 97, 98, 99, 108, 109, 110, 111, 113, 120, 122, 125, 126, 127, 130, 145, 149, 150, 158, 162 eta 167) eta UPyDren (guztiei eta 1) zuzenketen proposamena, «sektore publikoaren» kontzeptua «administrazio publikoarenaren» ordez sartzekoa

Autonomia Erkidego honen sektore publikoaren inguruko legearen xedea, helburuak eta aplikazio-eremua orokorrean zehaztuta hasten da **I. Titulua**, baina legeak aipatutako sektore publikoak euskal Administrazio Publiko guztiak eta horiei lotutako euren ingurune instituzionalak zein instrumentalak barne hartzen dituen multzoarekin izan behar duen eta duen konexio argiaren tratamenduaren bokazioa duela ahaztu gabe. Jarraian, euskal sektore publikoaren funtzionamendua zuzendu behar duten printzipio nagusiak ere finkatuta uzteaz arduratzen da, Euskal Sektore Publikoko Antolakuntza eta Funtzionamendu Legearen aurreproiektuan jadanik aurreratutakoak eremu horretan aipatuta eta zabaldua.

Beraz, autonomikoarekin batera, foru- eta toki-sektore publikoak hartzen dira aintzat eta, behar bada, estatukoa ere, gauza publikoaren sorrera- eta transformazio-prozesua, Administrazioak aukeratu beharreko ekintza-aukera ezberdinek sor ditzaketen inpaktu positiboaren edo negatiboaren ezinbesteko ebaluazioa, horren inguruko herritarren lehentasunen eta iritzien aintzatespenak eta arriskuak saihestea zein gizarteari irekitzen zaizkion aukerak aprobeztatzea ahalbidetuko duten erabakien hartzea modu egokian neurtu ahal izateko, euskal sektore publiko deituko litzatekeenaren esku-hartzearen bidez (horrela definitzen da gero, 1.3 artikuluan).

Legebiltzar-mailan martxan dauden ekimenen eta gure arkitektura instituzionalaren koherentzia politikoa lantzen duten beste eremu batzuen

aldiberekotasunaren haraindian interpretatzen da, egungo gehiengo politikoak lege horretarako nahi duena zerbitzu publikoa helburu duen euskal sektore publikoaren multzoaren gainean hausnartu eta diseinatu daitekeela, inguruneari lege horrekin agortzen ez diren eta, aldiz, horri esker bultzatu ahal izango diren tresnak emanda.

Nabarmentzekoa da, adierazpenen haraindian, legeak ezin duela helburu hartu antolaketa instituzionalaren araudia aldatzea, LHL den harremanen araua barne, batez ere, aspektu eztabaidagarrien iturria Autonomia Estatutuari eta Konstituzioari dagokion dimentsioa bada.

Eta hori guztia, Euskal Sektore Publikoko Antolakuntza eta Funtzionamendu Legearen aurreproiektutik ondorioztatzen direnen ezberdinak diren helburuetarako, euskal sektore publikoa honako hauek ere eratzen dutela ahaztu gabe: Eusko Legebiltzarra, Batzar Nagusiak, Tokiko Korporazioak eta Euskal Herriko Unibertsitatea, bai eta instituzio-maila bakoitzeko Gobernuak eta parte hartzeko, kontsultarako, independenteak diren zein aholku emateko organoak ere. Eta Legea testuak berak zehazten dituen erakunde pribatuetara eta partikularretara ere aplikatzen dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoarekiko bere harremanean.

Zuzenketak onartzen dira, batez ere aplikazio-eremuari buruzkoak, jadanik aipatutako zentzuan, eta erabilitako terminologiari buruzkoak («Administrazio Publikoa» «Sektore Publikoarengatik» ordezkatzeari).

Ukatutako zuzenketen artean, xedeei (gainera, beste talde batzuen proposamenekin zabaltzen dira) buruzko artikulua kentzea baztertzen da, Legearen interpretazio teleologiko egokirako irizpideak ezartzen dituela ulertuta. Irizpide horiek are garrantzitsuagoak dira orain, printzipio-mailan euskal administrazio publiko guztientzako aplikagarriak diren arauak daudela aitortzen den heinean. Bestalde, testuan errealismorik eta zorrotasun juridikorik ez duten eta, ondorioz, segurtasun juridikoari eragiten dioten adierazpen absolutuak eta arruntak sartzeari ukatzen da. Horrela, adibidez, euskararen erabilera «bermatzea» eta ez bakarrik bultzatzea betebeharra izatea; «aurrerapen» printzipioa modu absolutuan eta ñabardurarik gabe egituratzea, printzipio inspiratzaile gisa egin nahi badu ere, Administrazioak herritarren arazo eta eskaera guztiei benetan aurre egiteko gai dela pentsatzea errealista balitz bezala; informazio publiko guztia «berhala» argitaratzea, testuak jadanik argitalpen-epe zorrotzak aipatzen ditutenean, edo informazio guztia «herritarrena» izatea, Legeak erakunde publikoen zein partikularren informazioari eragiten dionean, «herritarrenak» direla esan ezin daitezkeen datu pribatuak zein bereziki sentikorrek edo babestuak eduki ahal izanda (filiazio

politikoa, osasuna, etab.). Era berean, Legearen beste zati batzuetan edo beste testu legal batzuetan jadanik aitortutako eskubideak printzipioetan sartzea ukatzen da; hala nola, informazioa ukatzeko eskubidea edo administrazio ona izateko eta erakundeen laguntza jasotzeko eskubidea Legeak aitortutako eskubideen jardunean, beharrezkoak ez diren errepikapenak kaltegarriak izateagatik.

Beraz, Titulu honetan honako proposamen hauek ONARTZEN DIRA:  
PSEren (3, 4 eta 5), BILDUren (6, 28, 31 eta 34), PPren (1 eta 3) eta UPyDren (1, 2, 3 eta 44) proposamenak

Aldiz, EZ DIRA ONARTZEN honako proposamen hauek:  
BILDUren (29, 30 eta 33), PPren (2) eta UPyDren (45, 46, 47, 48 eta 49) proposamenak

**«Politika publikoen plangintza eta ebaluazioa» izeneko II. Titulua** Gobernuak lehendakariak zehaztutako Gobernu Programaren arabera gauzatu beharreko «Gobernu Planaren» definizioarekin hasten da. 5. artikulua adierazi bezala, horren helburua hau da: «gobernu-ekintza denboran proiektatzea, gizarteratzea eta horren konpromisoaren eta erantzukizunaren oinarriak ezartzea, herritarren aurrean».

Funtsezko pieza horretatik abiatuta eransten dira Administrazioaren zereginetara ebaluazio-prozedura berri batzuk (inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa, inplementazioaren jarraipena, pilotutako emaitzen eta inpaktuen ebaluazioa, arau-multzoen inpaktuaren ebaluazioa...), dituguna baino aurreratuagoak diren ereduetan oinarritutakoak, 13. artikulua esan bezala, «gobernu-jarduera eta erabaki politikoak hartzeko prozesuak ordezkatu gabe eta datuen analisiaren bidez edo gizarteraren beharizan eta eskariei erantzuten dieten jarduera-ildo alternatiboen proiektioak eginez, epe labur, ertain edo luzean izan daitezkeen ondorioak aurreikusi ahal izateko eta, horrela, ebaluazioaren emaitzek eta planifikazioaren oinarri diren datuek deliberazio- eta erabaki-prozesu sendoagoak ahalbidetu ditzaten, objektibotasunaren eta gardentasunaren printzipioak gauzatuz».

Titulua hiru kapituluatan banatzen da, zapuztutako Euskal Administrazio Publikoaren Lege proiektuaren III. Tituluko bigarren kapituluaren lehenengo, hirugarren eta laugarren atalen kopiak, hain zuzen ere. Horrela gelditzen da, aurreproiektu honetarako, politika publikoen inpaktu-ebaluazioaz arduratzen den erregulazio hori, zentzu zorrotzengatik (horrela gelditzen da Euskal Sektore Publikoko Antolakuntza eta Funtzionamendu Legearen aurreproiektua izan dadin erakundeari gehien atxikitako ebaluazio-formak izateko; hala nola, erakundearen ebaluazioa eta kudeaketa publiko aurreratuako sistemen ezarpena).

Euren aldetik, **hiru atal** hauek honako hauen artean banatzen dira:

- a) Etorkizunaz edo aldaketen (plangintza, inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa eta jarraipena) plangintzaz eta inplementazioaz arduratzen diren irudi horiek, lehen kapituluaren taldekatuta.

- b) Iraganaz, egindakoa baloratzeaz eta bertatik ikasteaz, edo zeharkako ondorioak aztertzeaz arduratzen direnak (emaitzen ebaluazioa, karga administratiboen ebaluazioa eta arau-multzoen ebaluazioa), eta
- c) Aurreko guztien filosofia- edo printzipio-esparrua egituratzen duten eta zeharkagoak eta programatikoagoak diren aginduak, egituraren egokitzapena eta zerbitzari publikoen sentsibilizazioa barne, kultura administratibo berri hori sustatzeko.

Legebiltzarrak ebaluatu beharreko esku-hartzeen erabakian parte hartu dezakeenaren ideia onartzen da. Eta, ondorioz, nahi izanez gero, Legebiltzarrak zentzu horretan proposamenak egiteko aukera sartzen da, baina aurretik ebaluatu beharreko esku-hartze publikoaren harremana modu itxian eta inperatiboan zehaztu gabe, horrela, Legebiltzarrak bere kargu duen legegintza- edo kontrol-lana gainditu ditzaketen eta, ondorioz, botereen banaketaren printzipioa kaltetu dezaketen guztiz exekutiboak diren zereginetako interferentzia saihestuta. Nolanahi ere, argi dago Legebiltzarrak beti erabaki dezakeela, bere kabuz, aintzat hartutako esku-hartze publiko guztien inpaktu- ebaluazioaren azterketak egiteko beharra, ebaluazio hori gobernuari edo espezializatutako enpresa pribatuei arduratuta, zein (ahal izanez gero, eta Europako Parlamentuaren adibidea jarraituta) bere ebaluazio-zerbitzua sortuta, bigarren xedapen gehigarrian adierazitako zentzuan.

Beste proposamen batzuen artean, Gobernu-plana onartzeko halabeharrezko epea ezartzea ukatzen da (legealdiaren lehen lauhilekoa), testuak eskatzen dituen aurretiazko ebaluazioak gauzatzeko beharrezkoa izan daitekeen astia kontuan hartzen ez duela dirudienaren heinean, eta epea sartzeak ez du ezer ekartzen; izan ere, ez dira erabakitzen eta ezin lirateke erabaki epe hori ez betetzearen ondorio zuzenak. Hori ezin liteke arrazoia izan balizko hauste horren ondoko administrazio-jarduera osoa ezeztagarritzat jotzeko.

Era berean, egutegi legegilea gobernu-planaren derrigorrezko edukiaren zati gisa sartzea ukatzen da; izan ere, egutegi legegilea egitea eta Lege-proiektuak Gobernu-planean jadanik adierazitakoa izatea kaltetu gabe, berez, egutegia ez da planaren eduki zuzena, eta egutegi legegilearen betearazpena ez da adierazleen arabera neurtu beharrezko zerbait, tresna honek helburu duen zentzuan. Edozer kasutan, legeak helburuak lortzeko baliabideak izan behar dira (horiek dira aipatutako Gobernu-planean zehazten direnak), eta ez helburuak, berez.

Aurretiazko ebaluazioari dagokionez, «inpaktu ekonomikoa duen edozer jarduera esanguratsu» ebaluatzea ukatzen da, kasu honetan, adierazpena anbiguoegia delako; izan ere, «esanguratsua» zer den erabaki behar da, eta gutxieneko inpaktu ekonomikoak ebaluatzeko betebeharra eragingo luke, administrazio-jarduera guztiei onartezina den segurtasun-gabezia juridikoa emanda, geldiketa-arriskuarekin. Jarduera osoa ebaluagarria izanda, beharrezkotzat jotzen denean, beharrezkoa da zehazki erabakitzea zer ebaluazio diren beharrezkoak.



Aurrekontu Legearen eta Ekarpen Legearen proiektuen ebaluazioaren salbuespena kentzea ukatzen da; izan ere, lehen lege motak prestatzeko prozedura zehatza du (berez konplexu samarra) eta aurretiatzko ebaluazio inorena eta disfuntzionala izango litzateke bertan, eta bigarren legegintza-proiektuaren mota erakundeen arteko negoziaketaren emaitza da. Bi kasuetan, horrek guztiak inpaktuaren aurreko ebaluazioaren integrazioa zailtzen du prestakuntzan.

Halaber, talderen batek ebaluazio-araudiarekiko errepikakorrak jotzen zituen «politika publikoen plangintzaren eta ebaluazioaren sustapenari» eta «plangintza- eta ebaluazio-kulturaren» artikuluak kentzea ukatzen da. Artikulu horien balioa ebaluazioa gauzatzeko tresnak, batez ere teknikoak eta zientifikoak, ezartzea da, bai eta politikaren ebaluazio objektiboan erabili beharreko irizpideak ere, eta judizio eta aholku zientifikoko elementuak hautatzea (ebaluazio-irizpide horien argitalpena beste zuzenketan eskatzen zen).

Bestetik, «ebaluazio-irizpide» horien argitalpenari dagokionez, kontuan izan behar da, hemen erabilitako zentzuan, ebaluazioak ez duela balorazioa helburu eta, aldiz, objektiboa dela; hau da, inpaktu-analisia da EBren eta Espainiako araudiaren terminoetan eta, zentzu horretan, egokiagoa da pentsatzea helburua inpaktuak neurtzea dela, eta ez irizpide jakin baten arabera baloratzea. Zentzu berean, ebaluazio-prozesuan herritarren parte-hartzea bermatzeak (Lege-proiektuak defendatu bezala, larrialdi-kasuan izan ezik eta proposamenen batek nahi bezala, saihestu ezin den audientzia-izapidearekin) ez du frogetan eta ez balorazio-iritzi soiletan oinarritutako ebaluazioaren izaera objektibo eta tekniko hori indargabetu behar, eta are gutxiago ebaluatutako politikaren inpaktu zuzena halabeharrez ez duten baina derrigorrezko partaidetza duten aurretik zehaztutako sektoreen erantsitako balorazio-iritziak. Beraz, hobe da sektore jakin batzuen zerrendaren partaidetza modu itxian ez mugatzea, ezta derrigortzea ere, ebaluazioa «pluralista» izan behar denaren adierazpenak nahi bezala. Askoz egokiagoa da interesdun eta eragindako guztiena modu irekian eta objektiboan bermatzeko saiakera.

Irekitasun eta kasu zehatz bakoitzera egokitzeko irizpide hori ebaluazioa gauzatu beharreko epearen arabera jarraitu behar da, batez ere, ebaluazio-prozedura esku-hartze publikoen eta politikoen sortak aplikatu behar duenean. Horregatik, hainbat urtetarako planak derrigorrez beti urtero ebaluatzeko proposamenaren aurrean, errealistagoa izaten jarraitzen du egungo idazketak; izan ere, hori bere azken betearazpenera edo ageriko emaitzak aurreikusteko aukera ematen duen atarira lotuta dago, ex post ebaluazioaren unea ezartzeko. Une hori ez da legalki aurretik zehaztu behar, urtetik gorako epetik aurrera bakarrik ikus edo neurtu daitezkeen emaitzak ematen dituzten hainbat urtetarako planak egon daitezkeelako; izan ere, proposamen horren benetako helbururako egokiagoa eta egonkorragoa den beste tresna bat dago, jarraipen-ebaluazioa, hain zuzen ere.

Beraz, Titulu honetan honako proposamen hauek ONARTZEN DIRA:

BILDUren (44, 48, 50, 56, 57 eta 58) eta UPyDren (57, 58, 61, 66, 68 eta 69) proposamenak

Aldiz, EZ DIRA ONARTZEN honako proposamen hauek:  
BILDUren (42, 43, 44 eta 47) eta UPyDren (54, 55, 56, 58, 59, 60, 61, 66 eta 67) proposamenak

Bere aldetik, **III. tituluak** oinarrizko legearen eskema jarraitzen du, eta, testuinguru honetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan garatzen du Gardentasunari, informazio publikora iristeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen funtsezko edukia.

Lau kapitulutan banatzen da.

**Kontsiderazio orokorreari buruzko lehen kapituluan**, gardentasunaren arloan derrigorrezkoak diren subjektuak zehazten dira. Horiek ez dira Administrazio publikoak soilik, subjektu publikoak eta zuzenbide publikoko korporazioak ere badira eta, funtzio publikoak gauzatzeagatik edo sektore publikoarekiko duten elkarrekintza biziarengatik, horiek ere informazioa emateko betebeharra dute.

Gardentasun-betebeharrak dituzten subjektu berriak gehitzen dira; hala nola, Arartekoa, itundutako hezkuntza-zentroak, lanbide-elkargoak eta zuzenbide publikoko beste korporazio batzuk euren funtzio publikoen jarduerari eragiten dien heinean, elkarte publikoak, lankidetzeta-organoak, Legebiltzarra, kontseilu ekonomikoa eta soziala, lan-harremanetako kontseilua edo unibertsitate publikoak eta euren erakunde instrumentalak, erakunde pribatu batek gardentasunaren zein publizitatearen arloko betebeharretan erabiltzeko jasotako zenbatutako funts publikoak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioetik ateratakoak soilik ez izatea zehaztuta. Halaber, «urtebeteko epea» «aurrekontu-ekitaldiarengatik» aldatzen da, erakunde pribatuak gardentasunaren eta publizitate aktiboaren arloko betebeharretan erabiltzeko jasotako laguntza publikoaren zenbatekoa kontatzeko erreferentziatzeko epeari dagokionez.

«Informazio publikoaren» definizioa estatuko Gardentasun Legearen idazketa literalarengatik aldatzea onartzen da. Oinarrizko arauaren idazketaren funtsezko elementuak jadanik jasotzen badira ere, horren adierazpena pixka bat desberdina izan daitekeenez eta bertako zerbait falta dela esatea saihesteko, dauden bezala sartzen dira idazketa berri honetan. Nolanahi ere, aparteko edukia erantsi dezakeena mantentzen da eta, era berean, balioztatzen dena modu argiagoan eta zuzenagoan idatzita dago. Era berean, beste talde bate proposatu bezala, informazio publikoaren definizioa zabaltzea onartzen da, zerbitzu publikoak ematen dituzten erakundeek edo administrazio-eskumenak zein funtzio publikoak betetzen dituzten erakundeek emandakoa zein euren jabetzakoa sartzeko, betiere bere jarduera publikoan sortu edo lortu denean, edo jarduera publikoa bat gauzatzeko.

«Irakurketa errazeko materialak» sartzen dira informazio publikoaren kalitateari buruzko definizioetan, bai eta datuen berrerabilpenaren edo irekieraren definizioa ere. Eta aplikazio informatiko mugikorren edo etorkizuneko beste tresna batzuen erreferentzia zein informatika-ezagutzarik ez duten pertsonen irisgarritasunaren bermea sartzen dira, bai eta lehiaketako eta langileen kontratazioko prozeduren erreferentziak ere, gardentasuneko konpromiso

orokorren artean. Gauza bera gertatzen da orain dagokion artikuluan sartutako egitasunaren definizioa informazio publikoaren gardentasunari eta kalitateari buruzko definizioen barnean sartzearekin; horrek garrantzia nabarmena hartzen du, erregimen zigortzailearen eransketari dagokionez.

Era berean, «zehazki» terminoa gehitzea onartzen da hurrengo kasuan: administrazioek eta erakundeek euren egiturako organoari zehazki emango diote gardentasuneko eta publizitate aktiboko printzipioak sustatzeko eta zabaltzeko helburua. Gainera, aurreikuspen zehatza sartuko da, Autonomia Erkidegoko Administrazioa osatzen ez duten euskal sektore publikoko erakundeei dagokienez.

Halaber, herritarren gardentasunaren arloko eskubideen eta betebeharren artikulua espezifikoa sartzeari onartzen da, Lege horrek aitortutako eskubideak gardentasunaren arloan zehaztu edo garatu ditzakeen heinean, edo Administrazio ona izateko eskubidearekin, eta jadanik jasotakoarekin erredundantea izan gabe.

Ukatutako proposamenen artean, publizitate aktiboaren definizioa gardentasunari eta informazio publikoaren kalitateari buruzko definizioetan sartzearena dago; izan ere, publizitate aktiboak bere atala du, eta egokiagoztatzen da definizioa bertan mantentzea. Gainera, kontzeptu hori informazioaren eskuragarritasunarekin batera sartuta, gardentasunaren definizioaren formulazio berria ez da beharrezkoa. Gauza bera gertatzen da informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen definizioa aipatutakoen artean sartzeari dagokionez. Edo herritarren parte-hartzearen definizioari dagokionez; berezko titulua izateaz gain, horrek ez luke berez gardentasun-printzipioa zentzu zorrotzean osatuko (bertan aurkitzen da aipatutako definizioen artikulua), nahiz eta biak (parte-hartzea eta gardentasuna) elkarrekin lotura estua izan, arrazioen azalpenean azaldu bezala.

Halaber, publizitate aktiboaren betebeharrak laguntzak jasotzen dituzten guztiei edo laguntzak jasotzen dituen erakunde orori zabaltzea ukatzen da. Adierazpen lauso horrekin, pribatuen bizitzan sartzeari maila izugarria (eta onartezina) izango litzateke eta, kasu horretan, adibidez, mailegurako abala jasotzen duten S.L. txikiek, higiezina konpontzeko diru-laguntza jasotzen duten auzotarren komunitateek edota, interpretazio zabalean, DSBE jasotzen duten familia-unitateek, seme-alabak dituzten familiek... publizitate aktiboko betebeharrak izango dituzte hemendik aurrera... Irakurketa hori ez da saihesten «erakundeen» erreferentziarengatik; izan ere, hitza berezko nortasun juridikoa duten edo ez duten erakunde pribatuei edo aipatutakoei buruzkoa izan daiteke, halako betebeharrak ezartzeko maila txikiegia dutenak.

Beraz, atal honetan, honako proposamen hauek ONARTZEN DIRA:  
PSEren (45, 46, 47, 48, 50, 53, 55, 90 eta 91) Bilduren (83, 86, 88 eta 89) eta PPren (164, 165, 166, 167 eta 168) zuzenketetan jasotakoak

Aldiz, EZ DIRA ONARTZEN honako proposamen hauek  
PSEren (48, 49 eta 55), Bilduren (90 eta 91), PPren (160, 161, 162, 163 eta 166) eta UPyDren (75 eta 76) zuzenketa

**Publizitate aktiboaren kapituluan**, herritarrei modu proaktiboan helaraziko zaien informazio-sortaz gain, aipagarria da datuen irekiera eta berrerabilpena (open data). Aurreko legealdietan hasitako lanekin, estatu-mailan, Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindaria da gai horretan, nahiz eta oraindik badugun ibili beharreko bide bat aurretik, erreferentziakoak diren herrialdeen ereduera iristeko; hala nola, Erresuma Batua, iparraldeko herrialdeak edo Estatu Batuak.

Publizitate aktiboaren printzipio gidariei buruzko artikulua sartzea onartzen da. Era berean, informazioaren kalitatearen eskakizunari buruzko proposamenak sartzen dira, datuen birbanaketa, berrerabilpena eta aprobetxamendua erraztuko duten eta nagusiki elektronikoak diren baliabide egokiak gaitzeko beharri buruzkoak, eta hori herritar guztiek berdintasun-egoeran eskuratzeko aurreikuspenak sartzea kaltetu gabe, diskriminazio teknologikoaren ezarekiko edo hizkuntzaren erabilera ez sexistarekiko erreferentzia zehatzekin.

Publizitate aktiboaren epeei buruzko aurreikuspenak sartzen dira, urteko irizpide orokorarekin, baina sektore edo sail jakin batzuetan zorrotzagoa izatea kaltetu gabe.

Era berean, baldintza berriak sartzen dira aktiboki argitaratu beharreko erakunde- eta antolakuntza-informazioaren artean; hala nola, goi-kargudunen agenda instituzionalak, jarduera pribatuarekiko bateragarritasun-ebazpenak eta kargua utzi ondoko indemnitazioak. Zehazki aipatzen zaizkie aldi baterako langileei estatutuak eta antolakuntza-arauak, txantiloak, postuen katalogoak edo dokumentu baliokidea, lan-baldintzak arautzen dituzten hitzarmenak edo itunak eta indarreko hitzarmen kolektiboak, bai eta enplegu publikoko eskaintza edo euren langile publikoen hautaketa-prozesuak, bai eta sektore publikoko bigarren posturako edo jarduerarako bateragarritasuna baimenduta duten langile publikoen zerrenda ere.

Erakundeen planen aldizkako ebaluazioaren eta argitalpenaren eskakizuna sartzen da aktiboki argitaratu beharreko plangintzari eta ebaluazioari buruzko informazioan, bai eta plangintzari eta ebaluazioari buruzko argitalpen-epea sartzea ere. Eta argitaratu beharreko garrantzia juridikoko informazioen artean, berriak gehitzen dira; hala nola, administrazio-prozedura guztien katalogo eguneratua, isiltasun administratiboari buruzko arauak eta aurkeztu daitezkeen errekursoak, administrazio-egintzak, erantzukizun-adierazpenak eta domeinu publikoan edo zerbitzu publikoen kudeaketan eragina izan dezaketen aurretiazko komunikazioak, eta interes publiko bereziko arrazoiek aholkatzen duten bestelako kasuetan, administrazio-bidean berrikuspen-prozedura izan duten ekintzak, garrantzi publikoa izan dezaketen ebazpen administratiboak eta judizialak eta, dagozkien funtzioen eta erantzukizunen jardunean, lege hau bete behar duten pertsonen eragiten dieten behin betiko ebazpen judizialak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostenak edo xedapenen izapidetzea justifikatzen duten memoriak eta dokumentuak edo prozeduren katalogoa.

Diru-laguntzen informazio estatistikoaren edo lankidetzak-hitzarmenen argitalpena gehitzen da eragin ekonomikoa duen jarduera administratiboari buruzko informazioaren argitalpenaren artean, bai eta diru-laguntzen onuradun

pribatuen epeena, inprimakiena eta betebeharrera ere. Eta publizitate aktiboa izan behar duen sektore publikoko kontratuen inguruko informazioari buruzko artikulua zehatz bat sartzen da, publizitate aktiboa behar duten horien inguruko informazio kopuru handia dela eta; hala nola, kontratuen iraupena, egindako aldaketak, kontratazio-erakundeak eta organoak, euren eraketa, bai eta horiek igorritako aktak eta euren behin betiko ebazpenak, lanen aurrekontuak edo azpiegiturako kontratuen prezioen aldaketak ere.

Halaber, zorpetzeari buruzko informazio gehiago sartzen dira; hala nola, denboran duen bilakaera, epeak eta oinarriko ezaugarriak; biztanleko zorpetzea eta zorpetze erlatiboa, aurrekontu-sail nagusien deskribapena eta betearazpenari zein likidazioari buruzko informazio eguneratua eta ulergarria, eman beharreko urteko kontuak, eta horien gainean igorritako kontuen ikuskaritzako eta fiskalizazioko kanpo-kontrolako organoen txostenak, bai eta Autonomia Erkidegoaren finantzaketari buruzko oinarriko informazioa ere, aktiboki argitaratu beharreko ekonomia-, aurrekontu- eta ondare-informazioaren artean.

Herritarrek gehien eskatutako informazioa aktiboki argitaratu beharreko interes orokorreko informazioaren artean sartzeko proposamena onartzen da, bai eta honakoak sartzea ere: lurraldearen antolakuntzari eta hirigintzari buruzko informazioa, zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kexak eta erreklamazioak aurkezteko prozedura, aurkeztutako erreklamazioen kopurua eta interesdunen alde onartutakoen edo konpondutakoen kopurua edo proportzioa, edo zerbitzu publikoak eskuratzeko eskakizunak eta baldintzak, ordutegia eta, kasua balitz, eskatutako tasak, tarifak edo prezioak; horiek eskuratzeko existitzen diren itzarote-zerrendak, eta datuen berrerabilpenaren erreferentzia barne.

Printzipioz, ukatu egiten dira atal honetan jadanik landutako edo testuaren beste atal batzuetan erantsitako proposamen horiek; hala nola, Legeak lotutako subjektuei buruzkoak, edo erakunde pribatuekiko erreferentzia errepikatzearena. Halaber, ukatu egiten dira beste talde batzuen zuzenketen eransketak barne hartutako informazioei buruzko proposamenak, edo zuzendutakoaren desberdinak diren artikuluen aurreikuspenekin erredundanteak direnak.

Ukatu egiten da kolegiatutako organoen, ordezkartzen eta erakunde-erregistroen zerrendari buruzko informazioa aktiboki argitaratu beharreko antolakuntza-informazioaren barnean zehazki sartzea; izan ere, Antolakuntza eta Funtzionamendu Legearen kontua da, eta dagokion artikuluen azken tartekari atxikitzen zaio.

Halaber, Administrazioan eta bere sektore publikoan integratuta ez dauden erakunde judizialen sententzien eta ebazpenen argitalpenaz arduratzea ukatzen da; izan ere, horren argitalpena dagokion agintaritzak judizialak gauzatu behar du eta gauzatzen du.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoaren gardentasun-atariari buruzko artikulua zehatza sartzea ukatzen da; izan ere, gobernu irekiaren plataformaren inguruan

xedatutakoak estaltzen du, berezko kapituluarekin, intereseko zenbait elementu dagokion tokian berreskuratzea kaltetu gabe.

Beraz, atal honetan honako proposamen hauek ONARTZEN DIRA:  
 PSEren (51, 58, 59, 60, 61, 62, 63, 64, 65, 68, 70, 72 eta 73), Bilduren (93, 96, 101, 102, 103, 104, 105, 106, 107, 112, 114, 115, 116 eta 117), PPren (169, 170, 172, 173, 174, 176, 179, 183, 185, 187, 189, 191, 194 eta 195) eta UPyDren (83) zuzenketa:

Aldiz, EZ DIRA ONARTZEN honako proposamen hauek  
 PSEren (51, 57, 61, 62 eta 74), Bilduren (94, 100), PPren (171, 175, 177, 178, 180, 181, 182, 184, 188, 190, 192, 193, 196, 197, 198, 199, 200 eta 201) eta UPyDren (77, 78, 79, 80, 81, 82) zuzenketa.

Jarraian, **informazio publikoa eskuratzeari buruzko hirugarren kapitulua** dago, publizitate aktiboaren osagarri gisa eta, zentzu horretan, Legearen gardentasun-eskemaren osagarri gisa, herritarrek sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiei aktiboki argitaratzen ez den informazioa ere eskatu ahal izateko.

Jasotako informazioa erabiltzeko aukerari buruzko erreferentzia sartzen da, eta sareak, plataformak eta erakundeak aipatzen dira informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen titularrei buruzko artikuluan, gauzatzeko «interesduna» izan behar ez dela zehazki aipatuta, oinarrizko legeriaren arabera, Legebiltzarra, Aholku Batzorde Juridikoa eta baliabide horien Legebiltzarrari lotutako organoak salbuestea erabakitzen den bitartean, sarbidearen arloko aurkapen-erregimenari buruzko artikuluan.

Informazio publikoa eskuratzen duten pertsonen betebeharrari buruzko artikulua berria sartzen da.

Informazio publikoa eskuratzeko mugei buruzko artikulua aldatzen da, informazio publikoa eskuratzeko muga aplikazioaren proportzionaltasunari buruzko atal berria sartuta. Nolanahi ere, eskuratzeko eskubidearen salbuespenei buruzko artikulua kentzea eta oinarrizko legeriara igortzea ukatzen da; izan ere, horrekin berezko erregimena ezartzen da, oinarrizko legeriarekin bateragarria dena, eta ofiziozko Administrazioak informazio publikoa eskuratzeko prozedura berrabiarazi beharko duela eranstean da, betiere, informazio-eskaeraren ukapen-salbuespenaren aplikazioa eragin zuen arrazoia desagertzen denean eta hori ezagutzen denean. Halaber, aurreko sarbide partzialetik distortsionatutako edo zentzurik gabeko informazioa ondorioztatzen denean, hori egingo ez denaren aurreikuspena eranstean da. Gainera, legeria espezifikokoaren igorpena ere sartzen da, artxiboen, liburutegien eta museoaren informazioa eskuratzeko modalitatea lantzerakoan.

Informazio publikoa eskuratzearen inguruko ereduen eta eskaeren erreferentzia, eskuratzeko eskaera arrazoitzeko behar eza, bai eta informazio publikoa eskuratzeko eskaera ahoz eskatzeko aukera sartzen dira, eta eskatutako informazioa zehazteak eragin dezakeen zehaztugabetasunak zertan datzan hobe zehazten saiatzen da.

Administrazioa (edo erakundea) kokatutako hizkuntza-erregimena errespetatzeari buruzko tartekia eranstean da (Euskadiko ordezkariarekin edo

gure lurraldetik kanpo dauden Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeetan aplikagarria izan litekeela ulertzen da), baina Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialak zehazki sartuta.

Eskuratzeko zein aipatutako informazioa berehala eskuratzeko beste modalitate batzuei buruzko aurreikuspen berriak eransten dira; horiek eskubidea eraginkortasuna eta informazioaren osotasuna ahalik eta epe laburrenean bermatu beharko dute.

Eskuratzeari buruzko aurkapen-erregimenari buruzko errekurtsioak konpontzeaz arduratzen den organoarekiko erreferentziak zuzentzen dira, Gardena zuzenean aipatuta eta, bestetik, Gardenako presidentek Agentziaren jardueraren inguruan gauzatu behar duen txostenaren argitalpena gehituta. Aldiz, errekurtsioak jartzeko instantzia bezala Gardenaren Kontseilura zuzenean igortzea ukatzen da; izan ere, Kontseilua aholku-, hausnarketa- eta batera jartzeko organo bezala egituratzen da, baina presidentek ebatzi behar ditu aurkeztutako errekurtsioak, ebazpena eraginkortzeko eta arintzeko.

Nolanahi ere, ez da onartzen informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen titularrei buruzko artikuluan informazioa bilatzeko laguntza jasotzeko eskubidearen erreferentzia sartzeko beharra. Sartu nahi den eskubide horrek zentzua du aktiboki argitaratutako informazioari dagokionez; izan ere, kasu horretan, herritarrak bilatzen eta bereganatzen du interesatzen zaion informazioa, horretarako laguntza behar izanda. Laguntza hori administrazio ona izateko eskubideari buruzko artikulua orokorrean aitortzen du, Sektore Publikoko Antolakuntza eta Funtzionamendu Legearen proiektuan, baina ez du zentzu argirik, atal honetan arautzen den informazioa eskatzeko eta eskuratzeko eskubideari dagokionez, kasu honetan, Administrazioak entregatzen baitu zuzenean informazioa, erredundantzia desegokia izanda, desberdindutako erregimenak eta horien disfuntzioak saihesteko.

Zentzu berean, eskuratzeari arloan eskaera telematikoak sustatzeari buruzko aurreikuspen espezifikoak sartzeko baztertzen da; izan ere, eskaera telematikoaren aukera derrigorrezkoa izango da, administrazio elektronikoaren legeriari jarraiki, sektore publikoko Antolakuntza eta Funtzionamendu Legearen proiektuan jasoko den bezala, ondorioz, prozedura bakoitzean errepikatu behar izan gabe. Halaber, ukatu egiten da sail bakoitzeko gardentasun-organok saileko plana egitea Legean sartzeko; hori kudeaketako aurreikuspena da, araudiaren xede izan badaiteke ere.

Era berean, ukatu egiten da informazio publikoa eskuratzeari arloko eskaeraren formari eta edukiari buruzko aurreikuspenak kentzeko nahia, kentzeak ez baitu eskaera soiltsen. Aldiz, zaildu egiten du, airean uzten dituelako zeintzuk diren bere gutxieneko baldintza formalak. Halaber, arrazoi bera dela eta, formulatutako eskaerak informazioa nahikoa identifikatzen ez duenean, eskaera ebatzi behar duen erakundeak prozesua soiltszeko konponketa eskatuko duela kentzea baztertzen da; izan ere, konpontzeko bermeak administratua faboratzen duen bermea da.

Nolanahi ere, beste ikuspuntu batetik, isiltasunari zentzu positiboa ematea bazterten da, bai eta isiltasunaren zentzua konpontzeko eta jakinarazteko betebeharrarengatik ordezkatzeko nahia ere.

Batetik, konpontzeko eta jakinarazteko betebeharra eta sentitutako isiltasuna gai ezberdinak eta bateragarriak dira: isiltasuna herritarraren bermea da, konpontzeko betebeharraren balizko haustearen aurrean. Isiltasunaren zentzuari dagokionez, eskuratzeko eskubidearen ariketan, horren aldeko ebazpenak informazioa entregatzea dakarren heinean, helburu hori nekez ulertuko da isiltasun bezala, positibotzat jotzen bada ere. Gainera, zentzu positiboak aurrerago kontrako zentzuan konpontzeko ezintasuna dakar; ondorioz, erreserbatutako datuak emateko kasuak egon litezke, edo partikularren eskubideak eragin daitezke eta, legez, hala mantendu behar diren eta eskuratzeko eskubidearen salbuespenak diren sekretuak haustea eragin dezake, eta hori saihestu egin behar da. Horregatik, eskuratze eraginkorra eta hirugarrengoen eskubideekiko errespetua bermatzen ez dituen isiltasun «positiboaren» aurrean, informazio sentikorrei, pribatuei edo konfidentzialei (Administrazioak ere ez du horien gaineko eskubide absolutua) buruzko sekretuaren betebeharra hautsi gabe, isiltasun negatiboak errekurtsoen erregimenaren atea irekitzen dio eskatzaileari, Gardenaren zein, zuzenean, jurisdikzioaren aurrean.

Gardentasunaren euskal ordezkariaren irudia sortzea ukatzen da errekurtsu horiek ebazteko; izan ere, Gardenaren presidentearen baliokidea den irudia da, eta horri esleitzen zaio eskumena.

Era berean, argi eta garbi ukatzen da Gardenaren sorrera kentzeko nahia, Datuen Babeserako Euskal Agentzia errekurtsua jartzeko organoa bihurtuta. Batez ere eta gauza guztien gainera, Datuen Babeserako Euskal Agentzia datu pertsonalen intimitateaz eta horiek ez zabaltzeaz arduratu behar da. Aldiz, erreklamazio horiek ebazten dituen organoak aurkako jarrera hartu behar du; hau da, informazio publikoa ahal bezain beste zabaltzen laguntzea. Beraz, argi eta garbi ikusten da interesen arteko lehen gatazka, kasu bakoitzean hartu beharreko jarrerari dagokionez. Gainera, eskumen hori Datuen Babeserako Euskal Agentziari esleitzea ez da guztiz justifikatzen espezialitate-irizpidearekin, eskuratzeko muga gisa egituratzen denari dagokionez; izan ere, eskuratzeko errekurtsuak ebazterakoan, kontuan izan behar da intimitatearen zein datu pertsonalen gaineko balizko eragina, bai eta datuen zabalpenaren gainontzeko mugak ere, pertsonen intimitatearekin zerikusirik ez duten zuzenbide publikoko kontsiderazioetan oinarritutakoak (segurtasun publikoko kontuak, sekretu fiskalekoak, sekretu komertzialekoak...).

Alde horretatik, (gutxienez, bere jatorrizko funtzioa betetzen badu, besteen kutsadurarik gabe) Datuen Babeserako Euskal Agentziaren ikuspegia partziala eta potentzialki alderdikoia da; izan ere, jatorriz eta funtsean, gardentasun publikoaren aurka doan interes bati erantzuten dio eta, gatazkan dauden bi eskubide horien arteko oreka ona lortzeko, askoz eraginkorragoa da elkar koordinatuko diren eta orekatuko diren bakoitza defendatzeko organo espezializatuak izatea.



Beraz, atal honetan, honako proposamen hauek ONARTZEN DIRA:  
 PSEren (75, 76, 77, 78, 79, 80, 83, 84, 85, 87), Bilduren (118, 121, 123, 124, 128, 129, 131, 132 eta 133),  
 PPren (204, 203, 205, 210, 212, 213, 215, 221) eta UPyDren (87) zuzenketak

Aldiz, EZ DIRA ONARTZEN honako proposamen hauek  
 PSEren (81, 86 eta 89), Bilduren (118, 119, 120, 128, 129, 202), PPren (206, 207, 208, 209, 211, 214,  
 216, 217, 218, 219, 220, 222) eta UPyDren (84, 85, 86, 88, 89, 90, 91, 92) zuzenketa.

Azkenik, titulu hau **zehapen-araubide zorrotzari buruzko atalarekin** amaitzen da. Diziplinako zein administrazioko arau-hausteen tipifikazioaren bidez, horren helburua Legeak aurreikusitako betebeharrak behar bezala betetzen direla ziurtatzea da, erakunde publikoek egindako «publizitate erradikalarekiko» apelazioa asmoen aitorten soila izan ez dadin.

Talderen batek Lege osoko arau-hausteetarako zehapen-araubidea titulu autonomo gisa formalki proposatzen batzuen ere, materialki erregulatzerakoan, talde hori gardentasunaren arloko arau-hausteei buruz ari zen. Zehapen-araubidearen gabeziak hausteen zigorgabetasun handiena ekar dezakeen arloa denez eta, ondorioz, zehapen-araubide hori izan ezean aurreikusitako araudia eraginkorra izango ez denez, horrek zentzua du, gobernantzaren beste bi arloetan (ebaluazioa, partaidetza), kasua balitz, zigorra derrigorrezko prozedura-baldintzak errespetatu gabe egindako xedapenen balizko baliogabetasunaren eskutik etorriko delako.

Beraz, atal honetan, honako proposamen hauek ONARTZEN DIRA:  
 PSEren (93) eta PPren (252, 253, 254, 255, 256, 257, 258, 259 eta 260) zuzenketa: gardentasunaren arloko zehapen-araubidea sartzeari buruzkoa.

**V. titulu**an herritarren parte-hartzea eta partaidetza-prozesuak jorratzen dira, ikuspegi “malgu eta moldagarriarekin”.

Alde horretatik, batetik, **lehen kapitulu**an ezartzen ditu **partaidetza-prozedura eta tresna ezberdinetan komunak diren gai orokorrak, bermeak eta eskubideak**; izan ere, egun dauden eta etorkizunean sortu litezkeen parte hartzeko moduen kopurua, aniztasuna eta aberastasuna kontuan izanik, parte hartzeko edozein prozedurak bete behar dituen baldintzak eta oinarriko bermeak ezartzea izan da aukera, parte hartzeko figuren katalogo itxi bat, beti amaitu gabea, eskaini beharrean. Horrela, batetik, aurrez aurre zein telematika bidez parte hartzeko bide berri eta berritzaileak gehitu ahal izango dira unean uneko gaitasun teknologikoen arabera, beharrezkoak diren bermeak murriztu gabe. Eta, bestetik, administrazioari aukera zabala emango dio unean-unean erabakitzeko zein den jardun publiko bakoitzaren garrantziari, konplexutasunari edo neurriari hobekien egokitzen zaion bidea.

Partaidetzaren helburuaren idazketari buruzko hobekuntza batzuk gehitzen dira, eta zehazki aipatzen dira partaidetzaren arloko trebakuntza-programak, baina hori sustatzeko neurrien barneko atal berri bezala, eta ez artikulu berri gisa. Halaber, «erabaki-maila» eransten da, planaren, programaren edo proiektuaren garrantzira eta konplexutasunera doitu beharreko elementuetako bat bezala, edo aurreikusitako bermeen arteko eztabaida-fase baten aukera bezala.

Ukatutako proposamenei dagokienez, partaidetzaren helburuari eta artikulazioari buruzko artikuluan partaidetzako baliabideei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea sartzea baztertzen da; izan ere, Lege honen eskeman, eskubide autonomia baino, edozer eskubideren jardueran aplikagarria den zeharkako bermea da, eta horrela jasotzen eta tratatzen da partaidetzako prozesu guztietarako komunak diren bermeei buruzko artikuluan.

Era berean, proposatutako idazketan, partaidetzako prozesu guztien inguruan derrigorrez berri emateko betebeharra sartzea ukatzen da. Izan ere, ulertzen da, horien publikitate aktiboa dagokien tituluan xedatutako terminoetan eta beste bide batzuekin osatuta bermatu ondoren (hala nola, erabaki batek eragindakoen derrigorrezko audientzia publikoa edo, erregistroan izena ematearen bidez, informazio pribilegiatua jasotzeko aukera), herritarrei emandako informazio-maila partaidetza-prozesu guztietara zabaltzeak nahi denaren aurkako efektua izan dezakeela, herritarrari interesatzen ez zaizkion prozesuen oharrekin itota eta, ondorioz, desinformatuta.

Baina, beste aldetik, **«herritarren partaidetzako eskubide zehatzei» buruzko bigarren kapituluan**, aurreko bermeak aplikagarri izan behar dituzten partaidetza-bide edo tresna zehatzak ezartzen ditu.

Bere aldetik, atal honetan ere beharrezkoa da herritarren araudi-ekimenak sustatzeko eskubidearen irudiaren sarrera aurrekoa nabarmentzea, bai eta herritarren jardueretan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren lankidetzak eskatzeko eskubidea ere.

Lehenak, Herritarren Lege Ekimenari buruzko ekainaren 26ko 8/1986 Legean egun jasotzen diren eskema eta bermeak baliatuz, baina ordezkatu dezakeenari ateak itxi gabe, figura berritzaile hori hartzen du; izan ere, horren bitartez Jaurlaritzari aukera ematen zaio herritarren eskariak bere jardunean txertatzeko, betiere haien egokitasunagatik edo daukaten sostengu zabalagatik aintzat hartzea merezi baldin badute, baina politika publikoen gainean Jaurlaritzak duen erabakitze eta zuzentzeko azken gaitasunari uko egin gabe. Alde horretatik, Administrazio Publikoaren Lege-proiektuaren jatorrizko idazketari dagokionez, araudizko herri-ekimenari buruzko artikuluen atalen ordena aldatzea eta legegintzako herri-ekimeneko 8/1996 Legearen erreferentzia kentzen da. Teorian, azken hori egun izapidetzen ari diren berriarengatik ordeztu behar dute, bai eta zuzenketa teknikoren bat erantsi ere.

Bigarrenak ikuspegi berritzailea eta osagarria ekartzen du; izan ere, legeak edo arauak ematerakoan ekiteko gaitasuna emateaz gain, Administrazioa gonbidatzeko aukera ematen zaio herritarrari, horrek herritarren artean gizarte-helburuarekin eta irabazi-asmorik gabe sor litezkeen ekimen eta jarduerak pribatuetan parte hartu eta lagundu ahal izateko, horiek bereganatu gabe.

Beste aldetik, sail eskudunak herritarren partaidetzaren arloan gauzatu beharreko partaidetza-txostenei buruzko artikulua eranste da, horien ondoriozko publikitatearekin.

Kapitulu honetan, partaidetzaren oinarritzko lau tresna arautzeko errefusa nabarmendu behar da, Aragoiko erregulazioan bezala; izan ere, nahi hori existitzen den tresnen katalogoa nahita irekita uzteko testuaren espirituaren aurka doa. Gainera, bere idazketa zabala eta anbigua dela eta, uste da aurreikusitako «oinarritzko irudiek» jadanik finkatutako beste irudi juridiko batzuk oztopatzen dituztela; hala nola, herri-galdeketak, erreferendumak edo legegintzako herri-ekimenak. Hori ez da proiektu honen asmoa.

Halaber, «talde interesdun adierazgarriak» «antolatutako gizarte zibilarengatik» ordezkatzeari ukatzen da; izan ere, jatorrizkoan erabilitako terminoa koherenteagoa da erregistroan erabilitako terminologiarekin, eta partaidetzarako erregistroaren irudia sendotu nahi du, lobbyak eta presio-taldeak hobe kontrolatzeko.

Era berean, partaidetzako prozesuak pertsona interesdunei buruz izatearen aurreikuspena kentzea ukatzen da, gutxienez, parte hartu behar duen gutxienezko kopuruari dagokionez, eta interesdunak kontzeptuatzeari eta prozesua beti beste pertsona batzuen partaidetzara irekia egotea kaltetu gabe. Prozedura espezifikoei buruzko eskubide zehatzak ematen diren heinean, horien subjektua pixka bat zehaztu behar da eta, horretarako, interesdunaren kontzeptu zehatzaz baliatu behar da. Bestela, prozedura baliogabetu egin liteke hasieratik zehaztu gabeko pertsona bat ez deitu izanagatik, eta ezin izango litzateke parte hartzera deitutako pertsonen kopuru potentzialki amaigabea mugatu; irekia egongo bailitzateke beti.

Halaber, interes-taldeak edo lobbyak partaidetza-prozesuetatik ateratzeko nahia ukatzen da; izan ere, horrekin nahi denaren aurka, lobbyak ondo kontrolatzeak ez du debekatzea esan nahi, ez eta euren existentziaren errealitatea ezeztatzea ere. Aldiz, errealitate hori erregularizatzea da, Europa mailan egin bezala eta ELGAK gomendatu bezala. Lobbyen errealitatea azaldu gabe, herritar guztien partaidetza-eskubideak aitortzeak euren eragina handituko luke; izan ere, tresna berriak emango lizkieke, modu ezkutuan eta bidegabean.

Bestalde, partaidetzako plataforma teknologikoa zehazki aipatzea ukatzen da; izan ere, Lege honek sortutako Gobernu irekiaren plataformak bete behar du rol hori.

Hasiera batean, araudizko herri-ekimenaren prozedurako partaidetza populazioaren erroldan inskribatutako guztiei irekitzea ukatzen da, partaidetza politikoaren eskubidearen aldarrikapen-modua izan daitekeela uste baita. Aldiz, eskubide politikoak dituzten herritarrei mugatuta dagok, 23 EB artikulua aginduz. Gainera, beste era batean egiteak balizko disfuntzioak sortuko litzuzke hori gauzatu behar dutenen eta eskaerak erantzuten dituen Gobernu hautatu duten hautesleen artean.

Era berean, araudizko herri-ekimenaren prozeduran ekimenari buruzko erabakia irudikatzen duten txostenak jasotzeko aukera kentzea ukatzen da, prozeduran izango liratekeen atzerapenak arrazoituta. Eta hori, ekimenari

buruzko erabakia arbitrarioa ez den erabakia izan behar delako, behar bezala pentsatutakoa eta frogetan oinarritutakoa. Beraz, ezin da beharrezkoak diren txostenak jasotzeko aukera kendu, horren inguruan ebazteko judiziozko elementuak falta direnean. Gainera, aukera horrek ez du aldaketarik ekartzen artikulua aurreikusitako erantzun-epeetan eta, ondorioz, arrazoitutako atzerapenek ez diote erantzuten proiektatutako araudiaren errealitateari.

Beraz, TITULU honetan, honako proposamen hauek ONARTZEN DIRA:  
PSEren (94, 95) Bilduren (146, 147, 159, 161, 164, 165) eta PPren (229, 230, 231, 237, 240, 243, 244, 249, 251) zuzenketak

Aldiz, EZ DIRA ONARTZEN honako proposamen hauek:  
Bilduren (148, 160, 163) eta PPren (228, 232, 233, 235, 238, 239, 241, 242, 243, 244, 245, 246, 247, 248 eta 250) zuzenketa

Instituzionala den **V. Titulua** «gardentasunerako eta gobernu onerako organismoei eta erakundeei» buruzkoa da.

Beraz, titulu honetan, batetik, Gardena-Gardentasuneko Euskal Agentziaren sorrera sartzan da, gardentasunaren arloan Lege hori ondo betetzeaz arduratuko den organismo espezializatu gisa. Alde horretatik, aurreikusitako errekursoak konpondu behar dituen organo gisa definitzeaz gain, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24.6 artikuluan eta laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, Agentziaren lana ikuspegi zabaletik egituratzen da, Gardentasuneko eta Gobernu Oheko Kontseiluak estatu mailan gauzatzen duenaren antzekoa, euskal sektore publikoko erakundeak publizitate aktiboaren, datuen irekitasunaren eta informazio publikoaren eskuragarritasunaren arloan aholkatuta, eta herritarrei gardentasunaren eta informazioaren eskuragarritasunaren arloko eskubideen arloan informazioa emanda baina, kasu horretan, euskal espezifikotasunei erantzun beharraren berezitasuna gehituta, bere hiru gobernu-mailekin, betiere, independentzia eta objektibotasun osoz jardunda, horien jardueran inolako instrukzioen menpe egon gabe.

Bere erregulazioari dagokionez, artikulua desberdinduan Gardentasuneko Euskal Kontseiluaren definizioa bereiztea, bere eraketaren inguruan taldeek proposatutako doikuntzekin, talde parlamentarioen, Euskal Herriko Unibertsitatearen, kontsumitzaileen zein erabiltzaileen elkarten edo sindikatuen ordezkariak sartuta.

Legebiltzarrak Gardena presidentearen izendapenean (gainera, horren funtzioak agentziaren ordezkariak instituzionalarekin osatzen dira) duen rola zabaltzea onartzen da, baina beste taldeek proposatzen duten Legebiltzarraren hautaketa zuzena beto-aukerarekin ordezkariak, Legebiltzarrean agertu ondoren. Aukera horrek zentzua ematen dio agertzeari eta Legebiltzarraren izendapena baino funtzionalagoa da, teknikoak izaten jarraitu behar duen kargua ganberako indarren zerrendari zuzenean erantzuteko beharrezko gaitz politikoa den kargu bihurtzea saihestuta, Gobernuaren izendapenean ontasunaren presuntzioa guztiz onartu behar izan gabe.

Aldiz, kapitulua aldatzea ukatzen da, Datuen Babeserako Euskal Agentzia errekurtsioa jartzeko organoa izatearen zentzuan, jadanik adierazitako arrazoiengatik eta, era berean, Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa izatea ukatzen da; izan ere, bere funtzioa ahalmen publikoen ariketan datza nagusiki eta, ondorioz, Euskal Sektore Publikoko Antolakuntza eta Funtzionamendu Legearen irizpideen arabera, organismo autonomoa izan behar da.

Beraz, atal honetan, honako proposamen hauek ONARTZEN DIRA:  
 PSEren (91) Bilduren (134, 135, 140, 144), PPren (223, 225, 226 eta 227) eta UPyDren (94) zuzenketa  
 Aldiz, EZ DIRA ONARTZEN honako proposamen hauek:  
 PSEren (91), Bilduren (136, 138, 139, 141, 142 eta 143) eta UPyDren (94) zuzenketa

Bestetik, **Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren eta hainbat intereseko talde ordezkarien partaidetzarako eta lankidetzarako Erregistroa** ere sortzen da, xede bikoitzarekin: Batetik, herritarren partaidetza sustatzen saiatzen da, herritarrentzako edo talde interesdunentzako lehentasunezko bideak eta alerta goiztiarreko eskubideak gaituta. Eta beste aldetik, aurrekoaren osagarri bezala, eta Legebiltzarraren eta Europako Batzordearen zein antzeko organismoen Gardentasuneko Erregistro komuna jarraituz, informazio zuzena eskaintzen die herritarrei, Lege honetan aurreikusitako partaidetza-eskubideen bidez, euskal sektore publikoaren erabaki-prozesuetan legitimoki eragin nahi duten eta, horrela, jarraitzen dituzten interesak, norik defendatzen dituzten eta aurrekontua bezalako galderak erantzuten dituzten presio-taldeek edo «lobbyen» zein bestelako interes-taldeek inguruan.

Beraz, atal honetan, honako proposamen hauek ONARTZEN DIRA:  
 Partzialki, Bilduren zuzenketak (151, 152, 153, 154, 155 eta 156): izena herritarren partaidetzarako eta lankidetzarako Erregistroarenarengatik aldatzea eta herritar partikularrei irekitzea, baina erreferentzia tituluan zein erregistroan taldeentzako atal bereizietan mantentzea, lobbyen eta presio-taldeek kontrol-erregistroaren funtzioa ez indargabetzeko.  
 Bilduren zuzenketa (157), erregistroa balizko foru-erregistroekin koordinatzeari buruzkoa.  
 PSEren zuzenketa, (96) inskribatzen den taldeak eman behar dituen datuak zabaltzeari buruzkoa; nagusiki, sustatzaileen edo ordezkarien datuei buruzkoa, sexuaren aldagaia barne, eta taldearen jardueren finantzaletari buruzkoa.  
 UPyDren zuzenketa (95), lobbyek izena ematea sustatzeari buruzkoa (ez askotariko interesen ordezkartza-taldeak, baizik eta presio- edo interes-taldeak, zentzu zorrotzenez), diru-laguntzak emateko eskakizunaren bidez.

Aldiz, EZ DIRA ONARTZEN honako proposamen hauek:  
 PPren zuzenketa (234 eta 236) lobbyak erregistrotik kanpo uzteko atala eransteari buruzkoa. → lobbyak ondo kontrolatzeko ez dira debekatu behar, ezta euren existentziaren errealitatea ukatu ere; aldiz, errealitate hori erregulatu behar da, Europa mailan egin bezala, eta ELGak gomendatu bezala. Lobbyen errealitatea azaldu gabe, herritar guztien partaidetza-eskubideak aitortzeak euren eragina handituko luke; izan ere, tresna berriak emango lizkieke, modu ezkutuan eta bidegabean.

Azkenik, testuak «**Gobernu Irekiaren Plataformaren**» aurreikuspena sartzen du. Horri funtzioak esleitzen zaizkio gardentasunaren ikuspegitik, herritarrei horren jarduera-eremuari buruzko aurreko artikuluetan aipatutako informazio guztia eskuratzea erraztuko diona, gardentasuneko, informazioa eskuratzeko eta gobernu oneko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 10. artikulua zentzuan, bai eta beste ikuspegi batzuetatik ere, funtzio zabalagoak hartuta, Autonomia Erkidegoaren sektore publikoaren eta herritarren arteko elkarrekintzako eremu iraunkor bezala, ekintza publikoaren kudeaketa parte-hartura eta erantzunkidera zuzenduta. Bertan, gardentasunaren, partaidetzaren

eta kontuak ematearen printzipioak gauzaten dira, «Irekia» bezalako organismoek aurreko legealdietan hasitako lana jarraituta.

Alde horretatik, Gobernu Irekiaren Plataformatik horren eta beste euskal administrazio publiko batzuen arteko lankidetzak sustatzeko nahia onartzen da.

Beraz, atal honetan honako proposamen hauek ONARTZEN DIRA:  
PPren zuzenketak (201 eta 238).

Testu legala zenbait xedapen gehigarriekin, iragankorrekin eta azkenekin ixten da. Horiek testuaren aplikagarritasuna euskal sektore publiko osoa eratzen duten gainontzeko gobernu-mailetara eta administrazioetara egokitzen dute, herrialdeko erakunde guztietan gobernu onaren eskema osatzeko. Halaber, araua antolamendu juridikoan behar bezala sartzea ziurtatzen dute, indarreko beste testu batzuen ebaluazioaren eta aldaketa legalen arloko betebeharrak jakin batzuk aplikatzeko egutegia sartuta, erregulazio honetara egokitzeko.

Lehen xedapen gehigarria legeak tokiko administrazioetan izan beharreko aplikazioa definitzeaz arduratzen da. Normala den bezala, hori modu harmoniatsuan egin behar da, egun Kongresuan izapidetzen ari den Udal Legearen proiektua onartzeko aukerarekin.

Bigarren xedapen gehigarriak (lehenengo xedapen iragankorrarekin) foru-organoak aztertzen ditu, euren buruak antolatzeko duten gaitasunari dagokionez, baina haiek emandako foru-arauek esandakora egokitu beharreko gutxienezko printzipio batzuk ezarrita.

Antzera, hirugarren xedapen gehigarriak Lege honen hainbat arauk aipatutako Eusko Legebiltzarrekiko Lege horren aplikagarritasuna modulatu du, eta bereziki, xedapen orokorren prestakuntzan zein arau-inpaktuen ebaluazioan parte hartzeko eskubideari buruzko Lege honen xedapenak aplikagarriak ez diren arau-proposamenen izapidetzea, horiek ganberaren barne-araudiak ezarritakoaren arabera errespetatzea kaltetu gabe. Xedapen hori Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 aldatzeko bigarren azken xedapenaren aldaketarekin osatzen da. Horrela, ildo berean eta guztiz hautaz, Legebiltzarrak testu horiei buruzko organo horren irizpena eskatzeko aukera eransterakoan (orain arte ez zen aukera hori existitzen; izan ere, organo horren eskumenak bere legeak ebaluatzen ditu zorrozki), segurtasun eta kalitate juridiko handiagoa eman nahi die testu horiei.

Azkenei dagokienez, aipatzekoa da, batetik, xedapen orokorrak prestatzeko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 legearen aldaketa. Horrek arau-inpaktua ebaluatzeko prozedura berriak iter arauemailean eta legiferentean kokatzen du eta, bestetik, horren eta honen terminologia bateratzen ditu, lege berriak «erakusketa publikoko» bezala deitutako «informazio publikoaren» izapideari dagokionez, gardentasunaren tituluak aipatutako «informazio publikotik» hobe bereizteko.

Atal honetan, ukatu egiten dira kide anitzeko organoen zerrenda egiteko eta koherentziaren eta arrazionaltasunaren ebaluazioa egiteko Administrazioa bultzatzeko proposamenak; izan ere, Sektore Publikoko Antolakuntza eta Funtzionamendu Legearen proiektuari dagozkio. Halaber, baztertu egiten da sartzeko errekursoak beti Gardenaren bidez ebatzea, Lurralde Historikoen euren berezko organoak sortzea erabakitzeke tokirik utzi gabe, foru-erakundeen autoantolaketaren eskumena Lege horren eskuz kanpo dagoela eta errespetatu egin behar dela ulertuta.

Xedapen gehigarriei eta azkenei dagokienez, honako proposamen hauek ONARTZEN DIRA:  
Partzialki, printzipio-mailan Lurralde Historikoei aplikatzeko PSEren (97) eta UPyDren (96) zuzenketa.

Aldiz, EZ DIRA ONARTZEN honako hauek:  
PSEren (98, 100) eta Bilduren (168) zuzenketak

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainean

Sin.: Javier Bikandi Irazabal

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaria